



EGUIQUERA ONERASCOAC.





EGUIQUERA ONERASCOAC,
RDE TA GUEITUTECO
MISIÑO E SANTUEN
FRUTUA.

AR DAN BAI EMONAS.

BILBON:
DELNAS-EN alargunaren imprentan,
1878—garren urtean,



Liburuchu au dago arguiratsalliarren
escubidean.

†

Aita santuac, Jesusen Compa-
ñiacoac eguiten dituesan Mi-
siñoai, emonico parcamen edo
indulgensijac.

OSOAC. 1.^a Entsunic bost sermoe
edo icasquisun, confesan eta comul-
gauas erregutitearren Aita santuaren
intensiñora. 2.^a Confesau eta comul-
guetia gaitic erijotsaco orduan, eta
esin bada, Jesusen isen gosoa esatea
gaitic nais ta biotsas. 3.^a Erresetear-
ren gueisoac, misiñora joatearen ordés
confesoriac agiunduten deutsena. 4.^a
Eguitea gaitic, comulguetan es dirian
gasteac confesoriac agiunduten deutse-
na. 5.^a Aita santu Pio VII.^{to} emoni-
coa. 6.^a Comulguetearren misiñoetic
berroguet egun barruan. 7.^a Barriro
comulguetia gaitic sei illabete barruan.

OSOAC ES DIRIANAC. 1.^a Eun egu-
necoac eta onen ganetic Erromaco

estasiñoenac, bada estasiño eguna, entsuten dan icasquisun bacocho gaitic. 2.º Berreun egunecoac, eguitearren aleguñac beste batsuc joan ditiesen entsutera. 3.º Amabost urtecoac, entsuten dan sermoe bacocho gaitic. 4.º Saspi urtecoac, ibilltearren eroaten icasquisunetara. 5.º Eun egunecoac, iragarri edo asaldautearren echean, icasquisunetan entsun dana. 6.º Berreun egunecoac, erresetea gaitic birtutean iraiteco dagoan erregua, bardin misinoetic berroguet egun barruan erresetan dan bacochoian. 7.º Eun egunecoac, erregututea gaitic misinoeco Cristo curutsetuaren irudijaren aurrean etc.

Misionari Aita santuaren escubideu dauqueenac bedeinca-turico, errosarijo, curutse eta dominau dauqueesan parcamen edo indulgensijac.

OSOAC. Comulguetearren emen ur-rengo doiasan egunetan; Jesu Cristo gueure Jaumaren Jaijaqueran, Erreguenes, Asensijos, Pasco Espiritu santucos, Trinidades, Gorpustis, Consesi-ños, Marija Birgiñiaren Jaijaqueran,

Candelerijos, Andra Marija marticos, Asunsijos, San Juanés, San Josés, Apostolu santu gustijen egunetan, eta Santu gustijen jaijan. Eta eurac irabasteco, biar da erresau guichienes astean bein Errosarijo santuaren irugarren alde bat edo mesia entsun, edo gueisonc eta presoac bisitau, edo do-trinia iracatsi, erregututen dala bacochoian Aita Santuaren intensiñora. Beste indulgensija oso bat erijotsaco orduraco, Sacramentuac artu esin badira, Jesusen isen gosoa esatea gaitic.

Parcamen onec irabasteco bear dira aldian euqui errosarijo edo beste gausac edo euracas erresau. Bein artu esquero norberentsat gausa bedeincau onec, esin leiquijos emon euren grasijac beste bateri. Galduten badira errosarijoen curutsea edo garannen batsuc, barriestau leiquees, indulgensijac galdu bague.



EGUIQUERA ONERASCOAC.

Egunerocoa.

OETIC JAGUITEAN ESANGO DANA.

Neure Jaungoicoa, esquerrac emoten deutsudas, gaua iragoric, egun onetara ecarri nosulaco. Seurea da neure arimia bere almenacas, seurea nire gorputsa bere sentsunacas, gustijoc bada iminten ditut egun onetan, seure menderatasun, ondra ta glori-jaraco, eta irabasi bere gura ditudas berian, al neiquesan parcamen edo indulgensijac. *Sinistuten dot etc.*

Birgiña Marija Gustis santiari.

¡O Andra Marija, eta neure Ama maitea! ni nasan gustijau esquintsen naijatsu suri, eta isanic gustija seuria, gorde nagnisu seure pecuan, ta beguiratu eguidasu seure gausiari legues. *Jaungoicoac gorde saisala etc.*

**AINGUERU SANTU JAGOLIARI.**

Aingueru Santua, señen arduran imini nenduan, bere ontasun amaibaguean neure Aita serucoac; arguitu naguisu, susendu eta bideratu egun onetan, neure pausu ta lanetan. (1) *Aita gurea etc.*

Onen urrenge iracurric da astiro eta biotsetic, dagoan illaren egunari jagocan esacunia, sein billatuco daben 16.^{en} orrijan. Eta onen ostean al baleiteque entsungo da Mesa santua.

**Norberen sereguñac
santututeco bitartecoa.**

Escuac lanian imini baño tenago, edo lan barri bat asten danian, esangoda.

Bedeincatu eguisus Jauna nire lan eta aleguñac, eta lagun eguidasu isan ditiesen seure gogocoac.

(1) Pio IX.^o dancas iminiric 100 eguneco indulgensijac orasiño bionetarie bacocha erresetan daneraco, eta indulgensija osoa ill oso baten erresau esquero, confesau eta comulgauten dirianentsat.

Euquico da al bada ordu erdico orasiño biotseco edo mentala, edo ordu laurenecoa gueijago esin bada, lanen artean baño es bada bere. (2)

**Erlojuac ordua jotén dabenian
esango dana.**

Ave Marija gustis garbija pecatubarie sortua. *Ave Marija ta Glorija etc.* ¡Ene errucarrija! ordu bat dot guichigo munduan.

**Egun sentijan, eguberdijan eta
gaututuan erresauco dana.**

Jaunaren Aingueruac emon entsasan barri onac Marijari; eta Jaungoicoaren Semea sortu san bere sabelian, Espiritu Santuaren eguités. *Ave Marija etc.*

Ara emen Jaunaren esclabia; eguin bedi nigan sue esan dosuna. *Ave Marija etc.*

Jaungoicoaren Semeac artu eban gure araguija; eta bisi isan san gure ar-

(2) Benedicto XIV.^o autortu eban indulgensija oso bat orasiño onan eguiñic illa betian, confesau eta comulgauten dirianentsat, bere intensiñora erresauugas.



leau. *Ave Marija etc. eta Gloria Patri etc.*

ERREGUA.

Esarri eguigusu, Jauna, gueure ari-metan seure grasija; sure Seme Cristo-ren araguitutea, Aingueruaren bitartes jaquin dogunoc, bere Pasiño ta Curut-sea gaitic bistuera betico glorijsara erua-nac isan gaitean.

Jesu Cristo gueure Jauna bera gaitic. Amen.

JAN ORDUAN.

Dontsutu gagnosis Jauna, gu eta doai onec, seure escuaren ugaritasu-netic goiasanoc artuten. *Aita gurea ta Ave Marija etc.*

JAN OSTEAN.

Esquer onac emoten deusugus Jauna, seure mesede gustijac gaitic, batés bere orain eguin deuscusuna gaitic, eta escatuten deusugu eroan gagnosisala guero, seure betico maira. Amen. *Aita gurea ta Ave Marija etc.*

Es bedi irago eguna errosarijo san-

tua erresau bague, eta es bedi eguin arinca edo erdi loan. ta bitarteetan berbetan egonas.

GAUBERACO.

Obuto bacochari jatorcan orduan esango da.

Esquerrac Jauna, nic emoten deusudas, egun onetan, emon deustasusan arimaco arguitasun eta laguntasunac gaitic, eta gorde deustasun bisisia gaitic, eta orain escatuten deusut bialdu daguisula nigana seure grasija, esagutu daguidasan neure pecatu eta utseguiteac. *Emen eguingo da as-terren edo esaminia, dempora apur ba-ten, egun ataco utseguiteen ganian, eta guero parquescatuco deutso Jaunari eurae gaitic, damutasunagás Onen urrengo; Sinistuten dot etc. eta Virgíña Marija ta Aingueru Jagoliari, euren orasiñoac goissian legues, onec amai-turic esango da*

Gorde naguisu Jauna gau onetan. Jausi es nedin gach eta pecatuetan. Jesus, José ta Marija.

Emoten deutsuet, neure biots arima
ta isate gustija.

Jesus, José ta Marija
Seuen laguntasunian isan bedi nire erijotsia
Jesus, José ta Marija
Seuen besoetan ichiten nas gustija.

ASTEEROCOA.

Gorde domeca eta jaijac, es Lacarrie
Mesa osoa entsunagas, baita bere joa-
nagas Mesa nausi ta sermoera, bespe-
ra eta errosarijora.

Premiña andiric bague, es eguin
euretan landebecaturic, ta igués eguin
arimlaren arriscuco lagun, toqui, jolas
ta olguetarie.

Domequia da dempora gustis ego-
quija euquiteco gomutia, selan joan
jacon aste igarorico eguiquera oneras-
coetan eta sendatuteco aurrerantsera-
co gogoia, arturic onetaraco norberen
alde, ordu laurenen bat.

ILLEROCOA.

Confesau eta comulgauco da gui-
chienes bein. Comulguetan dan egu-

nian, gogoratueco da, selan irago daben
illa, egun, jai eta domecac gordeas,
goijan esan dan moduan, eta nundie
jatorcosan bere utseguiteac edo sein
dan euren sustraija, jaguítueco biots
sendoas bera ateraten.

URTEEROCOA.

Selan enqui leroaquean bacoachac
artaraco demporia, artu leique urte
barruco egun batian, guichiago edo
gueijago, gomutetaco, bere bisitsiaren
laburtasuna, bere ganiango contuaren
artestasuna, onetaraco iracurrijas li-
bururen bat gure asquenen ganian
berba eguiten dabena, eta guero Jesus
maitearen pasiño santuaren gomutia-
gas, guertatu urte gustico confesiño
damusco bat eguitera eta au eguific
urreratu Mai Santura, aleguñeseco
garbitasun ta amodijoas, urte barruco
comuniñoie ots eta guertacra bacoac
gaitic parquesatsen.

Dempora gustietan eguitecoac.

Es ausi Jaungoicoaren eta Eleissa
Ama Santuaren agiunduac eta norbe-
ren bisimodu edo estaduco eguin biar-
rac, munduco ondasun eta esamesac
gaitic.

Euqui berarisco oneraspen edo debosiñoa, Jesus eta Marijaren biots dontsuai.

Euqui confesore bat, eta es berari estaldu arimaco argaltasun, esetsi eta onera susenduteco arguigarrijac, eta es aldatu bera, erraso esbada, ta bisitsia onagotuteco baño.

Euqui biotsa Jaungoicoagan eta Jaungoicoa biotsian.

Gomutau sarri Jaungoicoaren beguijac idigniric dagosala beti gu icusten, eta es jacola estalduten, es gure gaisqui eguiña eta ain guichi gure igarotuten dogusan neque nifi eta premiñac.

Jaquinic gagosala munduan bacarrie, Jaungoicoaren borondatea betetaco, isan bedi Jaungoicoaren borondatea gure eguiquera gustien asiera ta asquena.

Egon bedis beti gure beguijen aurean, gure bisitsiaren susengarri, Jesus gueure Salbagailla maitearen bisitsa ta erijotsa gogorra.

Illaren egun bacoheraco esacuna santuac.

1.^{co} Jaungoicoa da nire Eguillia, nire Erredentsallia, nire Onguillia,

nire Glorija emollia eta neure Aita. ¿Es dot maite isango? ¿Es dot serbi-
duco?

2.^{co} Jaungoicoac nacus, Jaungoicoac nantsu, Jaungoicoac contu artuco deust. ¿Es deustat bildurric isango?

3.^{co} Arima bat dot, eta berau da bacarra, eta da beticoa. ¿Es deustat arduraric euquico?

4.^{co} Arimia salbetan badot, gustija dago salbauta, ¿Sertaraco ditut orduan, ondasunac, ondraz eta gustuac? galduric arimia. ¿Sertan beteco dabe galdumendi au gausa aarec?

5.^{co} Ser balijoco deutso guisonari mundu gustia irabasteac, galduten badau bere arimia? Aberastasunac, andiquerijac ta soraquerijac gueldituco dira munduan, nire gorputsa barris arren janari lurpeian.

6.^{co} Es dago baqueric, es dago possic, urrindu danentsat Jaungoicoa ganic.

7.^{co} Siurra da erijotsia, baña es daquit bere ordua.

8.^{co} Laster pecatu eguiten da, memento baten illten da, eta beste baten inpernietara jausten da, nun egon biarco dan betico iraunetan.

9.^{co} Gomutau daguisula edo es, si-

nistu daguisula edo es, illgo sara eta
erabaguierruqui bacoa isango da sura
ganiar; salbauc sara edo condenaui
isango sara, selan ondo edo charto bisi
isan sarean; eta bionetariac bat jasoco
da sugas, nais ta gura isan nais es,
nais Aita Santua isan, nais Erregue.

10.^o ¿Sertaraco gagós munduan?
Bacarric Jauna serbietaco, eta au egui-
ñic, bera seruan gosetaco. ¿Badago inior
serua gura es dabenic?

11.^o Utsa eta utsquerija da gustija,
es bada Jaungoicoa maite isatea eta
bera serbidutea. ¿Eta maite isango do-
su utsqueri au?

12.^o Une bateco gustuac dacarquig-
us betico damua ta betico malcuac.
¿Es dosus gorrotu isango gustu gaisto
oneec?

13.^o ¿Ser eguingo ete leuque con-
denau batec, balenco nic orain dauca-
dan demporia salbetaco? Eta nic ¿ser
eguiten dot?

14.^o Gurarijac bai, obraric es, dau-
quee inpernuu eguinda ganez. ¿Es deut-
see seure sinisqueriari lagunduco egui-
quera onac?

15.^o Seruraco bidea da estua, gui-
chi dabilts bertatic, eta andic ibilteco
biar dogu es entsuteric emon gurari

sitalai eta aurrera jarraituteco indar
eguin; inpernuracoa da sabala, asco
doas bertatic, es dago an indar eguin
biarrie. ¿Seinataric gura dosu ibilti? Es
eguijoso arren beguiratu bideari, be-
guiratu eijesu euren asquenai. ¿No-
runtz darraioet Serura ta inpernuraco?

16.^o Dempora guichijian Jesusegas
necatseac, dacar beragas seruan beti
jartsea. ¿Es sara sendatuten?

17.^o Pecatu arin edo benialac, errés
edaten badosus, laster mortal edo
illicorra traban isango jaisu.

18.^o Erijotsaco orduan, eguiquera
onac postuco gaitue bacarric, ta min-
emongo deuseuc gaisqui eguiñac, aur-
rés damutu esic.

19.^o Nor bisileiteque beti, su gori-
jaren erdijan, inpernucos ta condena-
dus inguraturic?

20.^o Gausa biarra isan san Jesus
Cristoc padesieta eta guero seruan
sartsea. ¿Gura es dosu suc padesieta?
¿Ay! es dosu gura seruan sartsea.

21.^o ¿Cristo dago barauric, ni jana-
ris aseturic? ¿Cristo dago billosturic,
ni apainduris jantsiric? ¿Cristo dago
gustis peneetan, ni barris atseguifetan?

22.^o Eguisu orain erijotsaco or-
duan guraco seunqueana eta guraco

seynquean moduan eguin isatea, ordu atan bada gura isango dosu eguiñac isatea, eta es da isango demporia.

23.^{oa} Irasarturic bisi isan saitéis eta eguisu orasiñoa, jausi es sedin tentasifioan. Jesu Cristoc dirautsus berba onec; entsun eguijосу eta bota naguitasuna.

24.^{oa} Biar da orasiño eguin umiltasunas conpijantsas eta aspertu bague. Esquecoa sara su, eta Jaungoicoa da aberatsa ta ona.

25.^{oa} Nor berari indarric eguin bague, seruco erreñuan sartu esin leiteque.

26.^{oa} ¡Ay munduaren errucarrija escandaluac gaitic! Bañan sorigaistocogoa da escandalua emoten dabena. Jesu Cristo da diñuana

27.^{oa} Sé atseguin danque orain condenaduac, munduan gosau situesan nasaiquerijac ganic, seintsucas erosi eben inpernuac? Igués eguisu bada eurrac gandic.

28.^{oa} Aleguñ gustijac eguiten es ditusanac arimia salbetaco, edo da soroa edo es dauco sinisqueraric. ¡Arimiac es dau balijo beste gausa gustijac baño gueijago?

29.^{oa} Salbetaco biar da euqui beti-

coiraun edo eternidadea buruan, Jaungoicoa biotsian eta mundua oñpelan.

30.^{oa} Sartu gura badosu seruan, gometau saite, seruco atea dala Marija. ¡Es dosu egingo al dosuna, adisquido euquitearren?

31.^{oa} Aingueru Jagolia dago beti gugas, bera urrian egoteac emon beguigu itsel ta erresetua, bere amodiñoac esquer ona, eta bere mesedeac icharopena. Isan daijogun debosiño samur bat Aita San Joseri, bera gandic jadetsiteco bear dogusan grasijac, bates bere Eleissa ama Santuarentsac baquea eta erijotsa on bat gueuretsac.

Beguiratsecoa. Es bequisu secula astu, egunero erresetea Purgatorijoco arima bedeincatuac gaitic, pecatarijen biurreria gaitic eta Eleissa Santuaren ta Erreñuaren premiñac gaitic.

Confesiñoaren ganian icasbide labur bat.

Euqui eiquesu ondo jaquinda lenengo fede santuco equija au; edo confesiñoa edo condenasiñoa, pecatu mortallian basagos eta confesau al basara confesau bear sara, eta eguiten es badosu, condenadua isango sara, eta es

deutsue balijoco es mesac entsuteac, es
errosarijoac erresetecac nais ta barauac
eguiteac; esta eguingo basendus santu
gustijac eguin dituesan penitentsijac,
es sautube impernuco peneetatic li-
brauco.

Alanche dauco Jaungoicoac eraba-
guita, baña aguindu au emon daben
Jaungoico onac berac, arinduco deut-
su pisu au, bere ofietara erregus ba-
soacos, ta guero garbituric seure ari-
mia, beteco saitus secula esagutu es
dosun posés. Guertatu saite bada con-
fesiño on bat eguiteco, edo pecatu gus-
tiena edo confesau biar dosusanena.

CONFESIÑO GENERALA.

Confesiño generala edo da debosi-
noscoa edo eguin biarrecoa, debosi-
noscoa da alaco borondates eguiten
daná lengo confesiñoac onac isan di-
rianian, eta orduan da erresa esamina
eguitea; es dago, pecatu gustiac gomu-
tan barriic, baita da erresa confesetea
serren es dagoan pecatu gomutauac
gustijac esan biarriic, es bada gura di-
rianac baño, jaquinic baña, confese-
teac barriro emoten dabela damutasu-
na eta jadetsi grasija.

Eta confesiño general biarrecoa da,
eguin biar dana lenagoco confesiñoac
charrac isan dirianian, eta orduan,
esamiñau ta confesau biar dira peca-
tu gustijac, len bat bere confesau es
balits legues, asten dala esaminietan ta
confesetan pecatuac, asquenengo ondo
confesau sanetic; eta beti charto con-
fesau bada, lenengo confesifiotic edo
errasoia eucanetic. ¿Eta se utseguite
gaitic isaten dira confesiñoac charrac?

1.º Examinaric es eguitea gaitic,
edo charto eguitea gaitic, eta au aur-
quitsen da, ardura baric eguiten da-
nian esamina, erresu bat hacarric ba-
lits legues, beti canta batetic, eguin
arren modu ascotaco pecatuac; eta
cristinauren jaquin biarrac edo bere
bisimodu edo estaduarenac es jaqui-
teagaitic.

2.º Damutasunic es euquitea gaitic.

3.º Es euquitearren gogoric peca-
tuo bideetatic alde eguiteco, ocasiño
ta lagun char pecatura daracoenac
ichiteco, ondra edo ondasun inoren
al isan esquero biurtuteco, ecandu
charrai indar eguiteco, eta confesoriac
agunduten daben penitentsija bele-
taco.

4.º Lotsas edo bildurres, pecatu



mortal confesiñoan esan biarra, estal-
dutea gaitic; eta pecatuac mortaler-
guño guichitu edo gueitutea gaitic;
edo upainen moduan, ta besteari er-
rua botaten jacola confesetea gaitic.

Esamiñia eguiteco susengarrija.

Esamiñiaren gaitian jaquingo da.
memorija edo bururic es euquija gai-
tic, es dala ños isango charra confesi-
ñoa, es bada borondateric esa gaitic
edo naguitasuna gaitic baño. Eta one-
taraco euqui biar dan arduria, isan
biarco dabela; alaco persona beguir-
tuac imini isan daroena ondo egui-
tea, asco contu dentsen gausetan. Es
dabela Jaungoicoac escatuten eguin
esin leiqueen gausaric, eta alan es
dabela agunduten, buru edo osasuna
galdu daiten pecatuen esamiñan, eta
es dabela gura calteraco dan aldés, bu-
rua larregui berotutea, eta biotsa gue-
ro liorra damutasuneraco guelditsea;
ulertu esin leiqueanian barris pecatua
mortal isan dan edo es, esan daitela
san moduan edo daquijan moduan, eta
besteric atera esin daniñan pecatu nas-
te andijetan bisi isan dalaco, esan dai-
tela asteca edo illea eguin ditusan pe-

catuac, eta gueijago esinian, seimbat
irago daben onelaco ecanduan; icharo-
ten dabela Jaungoicoac emongo dent-
san arguitasunian, eta onetaraco esa-
miña aurretic escatuco deutso umilta-
sunes pecatuac gomutetaco grasija,
Birgiña pecatarijen ama iminten da-
bela bitarteco.

Lénago esan danetic jaquin leique
bacoachac daucan edo es confesiño ge-
nerala eguin biarra eta badauco, go-
mutau biar dau noisic noisera confe-
sau eta comulgau isan dan, pecatuan
egon dan artean, baita bere beste Sa-
cramenturen bat artu badau esan dan
demporan, serren eguin isan dan pe-
catu.

Pecatuen iracurteguja, edo
dala asquenengo confesiñotic
edo confesiñoac barriestuteco.

1.º MANDAMENTUA.

Pensamentuac. Fedeco eguijac
bere barruan ucatutea, edo egotea
norberen guras pentsetan alan ete di-
rian edo es, eta es eguitea aleguñia
onelaco pentsamentuac burutic laster
botateco.

Galdutea, Jaungoicoac pecatuac parcatuco deutsasanen eta gloriya emongo deutsanen icharopen edo esperantzia; edo icharon salbetea penitentsiari eguin bague.

Ain ichutua egotea munduco gustuean se eurarac gosatearren, agur eguitea seruco atseguinai.

Berbac. Quessac bota edo berba eguin Jaungoicoaren^a contra, arrotu pecatuac gaitic ondo eguinac baliya legués.

Gaisqui esan, irain ta burlac eguin pertsona birtutetsuni.

Galeraso obra onac eguitea, aguintaritasunagas, papelac escribeduas ta erechi charrac emonagas.

Blasfemiñac Jaungoico edo Santuen contra esan, edo emon ocasiño beste hatsuei esateco.

Eguiquerac. Saldu, emon, eugui edo iracurri liburu debecauac, baimenic bague.

Ibilli iguesi sermoe eta eguiguera onetarie.

Es eguiteac. Es jaquin cristinauen icasquisun edo doctrinia jaquin biar dirian gausetan.

Orasiñoric eserchu bere es eguin. Gogo ta intensiño deunguias egui-

quera onac eguin, edo: santuisat eugui daguien.

Mundutarren esacunaac gaitic, gausa onac eguiteari ichi.

2.^{en} MANDAMENTUA.

Pentsamentuac. Gogoa euguitea juramentu gusurrescoa eguiteco.

Berbac. Eguin juramentu gusurras, edo eguija ete dan edo es, diñoana, es daquijela.

Juramentua nor baiti bota, gachebat eguingo deutsala; edo norberari.

Prometidu edo esquini juramentupeian serbait, cumphietaco nsteric bague.

Juramentuac sarri eguiteco, ecandua euguitea.

Eguiquerac. Juramentu gusurrescoa eguitera, beste bat imini.

Es eguiteac. Esquinta edo promesa bete biar dirianac es bete edo lusatu naguitasunes cumphietea.

3.^{en} MANDAMENTUA.

Pensamentuac. Artu gogoa mesaric es entsuteco, biarra eguiteco, saldu ta erosteco domeca edo jaijan.

Berbac. Berbeetan egotea eleisan bates bere mesan.

Eguiquerac. Biar eguin edo eraguin jai egunian eta seimbat demporan. Abade edo eleisguisonai errespetuan utseguitea.

Es gorde eleisiari jagocan itseltasuna, beguiracunacas, sinuacas, barre edo beste gausa eleisan eguin biar es dirianacas.

Es barauric eguin ta bigilijaric gorde, urteac euquijarren, eta neque, gach edo premiñaric es euquijarren.

Iragotea jaiegunac ardanteguietan, café ta jocoetan.

Es eguiteac. Es galeraso seme, otsein ta echecoai biar eguitea jaietan.

Es entsun mesaric naguitasun edo arduraric esagaitic. Penitentsijaric cumplidu es.

Egon orasiñoan pentsetan, nor beren guras, biar es dirian gausetan.

4.ª MANDAMENTUA.

Pensamentuac. Gorrotu isaten guraso edo nagusiac, opa isaten deusela erijotsia edo gach andiren bat.

Juisiño edo saijo charrac eguin erac gaitic.

Berbac. Charto esan eurai aurrian edo ostein, edo semai, madaricasido edo berba asco lotsatu edo sentiduco dabesanac aurrean eguin.

Bardin anaija edo echecoai.

Eguiquerac. Aita eta amari utseguitea errespetuan escua jasoagas, sinuacas edo beste eguiguera sentimentu andija emoteocoacas.

Euren aguinduac es eguin, batés bere, gabeian demporas echera batutean, joco ondagarrijetan ibilltean, lagun charracas batsean edo bera onduteco esan daroacoesanetan.

Errespetuan utseguiteac eleisguisonai, nagusiari, maisu ta aguintariari.

Gurasoac galerasotea euren seme alabai artutea, alaco Jaungoicoac euren bisimodu edo estaduraco emon deutsen dei edo bocasiñoa, dala eleisara-coa dala matrimonioñocoa.

Bisimodu charra emon emasteari.

Ichi alabac bacarrian guisonescocoacas.

Saspi urtera elduteracoan eta lenago aurreratuac badatos, es aldendutea seme alabac oean.

Seme alaben aurrean gurasoac icasbide edo eguiguera charrac eguitea.

Es eguiteac. Aitari ta amari es



lagundutea gueisoturic, inoren biarrés edo preminaren baten dagosanian, es joatea leusten gueiso charren bat dauqueenian; ta es eguitea aleguinac; sacramentuac arturic, ta euren munduco gausac ondo guertaturic isan daiten euren asqueneco ordua.

Gurasoen baimena baric escondute-co berbia emotea, edo escondutea

E masté ta umeai es emotea jagocoén janárijá ta besteac.

Seme alaba ta echecoai es eracustea doctrinia ta Jaungoicoaren bildurra.

Mesa ta eleissaco jai oficioetara es bialdutea.

Arduraric es artutea jaquiteco nogas ta nundic dabiltscoesan.

Es eracustea bisiteco biarmodu edo opisioa.

5.ª MANDAMENTUA.

Pentsamentuac. Opa isatea erijotsia edo gach andija lagun progimuari.

Postutea arerijoaren gachas edo tristetu bere onas.

Berbac. Es euqui eruapen edo pasientsijaric neque ta iraiñetan.

Escatutea eta gura isatea erijotsia

datorquijon, edo diabruac eroan da-guián.

Beste arembeste lagun progimuari opa isatea.

Esatea norbaiti bengau daitela, edo eguinda guero, ondo eguin dabela.

Irañlac eguin berbás aurrean edo ostean.

Madariçasinoac bota bere buruari edo besteari.

Bialdu esquecoac berba charracac edo mespresions.

Eguiquerac. Ilteco arriscuan egon edo ibilli preminá bague.

Jan ta edan gach eguin artean.

Bengaijac artu. Burruca ta maquillac eguin.

Errasoe baco ausijac daquijala imin-ten, eragotea edo ataraco erechijac ta bideac emotea.

Escandaluac emon pecatu aguirijacac, irudi lotsagarrijacac, pecatuco bideac eracutsijagac edo atara sacatugas.

Es jaquin nor beren opisio edo bisieran biar dana jaquin, calteac eguiten ditusala.

Imintea lecu edo cargu ardura be-arrecoetan, buru bacoac, ardura bacoac edo gaistoac.

Es eguiteac. Escandaluac es eba-
guitea, biar danari jaquin erasoagas.
Arerijoari gures artu ordeasco on
edo satisfasinoa, edo nor berac gures
emon, emotea jagocana.

6.^{en} eta 7.^{en} **MANDAMENTUAC.**

Es dira emen esarten pecatuac ba-
nan banan euren esaintasuna gaitie,
alan bacoachac, astertuco ditu, bere
almenac ta sentsunac, jaquiteco nora-
guinocoac dirian bere pecatuac man-
damentu onetan.

Eta lenengo astertu beguis host sent-
sunac, bates bere icusteena, entsute-
ena ta icututeena.

Baita bere pentsamentuac, berbac
eta eguiquerac.

Amesac bere, isan badira aurresti
gura isanicoac, edo ostein gustus go-
mutauac.

Gomutau beguis berac engañatuac,
charto iracatsi deutenac, bildurrés
edo indarrés pecatura sacatu ditusa-
nac.

Eguin ete daben bitarteco edo estal-
guilla.

Emon daben lecu edo amparua pe-
caturaco.

Euqui baditu bere echean batsacunt-
sa gaistoac.

Astertu beguis cartac, cantac, erre-
caduac, doaiac, liburuac, irudijac, gau
ibillerac, dantsac, ocasiñoac, arriscuac
ta bere ibillera gustijac echean, so-
loan, basoan ta erromeri ta bideetan.

Baita apaindu bada gogo esuñiagas
eta bardin joan bada eleissara onelaco
pentsamentuacac.

Esan biarra da pecatu lagunaren es-
tadua danian eleissacoa senide ta es-
condua.

Asquenés jaquitecoa da guei onetan,
adimen edo auquera osoas enquiten
dirian gustu esaiñac, diriala gustijac
pecatu illicor edo mortalac.

7.^{en} eta 10.^{en} **MANDAMENTUAC.**

Pentsamentuac. Euquitea go-
goa edo gurarijac inoren gausia artu-
teco, calte eguiteco, edo sorra es pa-
guetaco.

Sequentasunac biotsa arturic euqui-
tea.

Berbac. Irabasteac eguitea gu-
surracas ta juramentu gusurreascoacas.

Aguindutea, erechijac emotea calte
eguiteco edo lapurretaraco, eta eguin
da guero ontsat emotea.

Eguiquerac. Lapurretac eguiten, estaldutea ta es galerasotea.

Ausi fede charrecoac eraguitea, euquitea ta laguntsea.

Erositea gausa osturicoa, edo saldu esin leiqueana gaudic edo balijo daben baño ascos guichiagoan, saltsalliaren premiña edo es jaquina gaitic.

Jocoan trampac eguitea.

Saltsea'pisu, neurri edo salguei charrian ontsat.

Itioren caltean dirian engañu gustijac.

Logreru irabasteac.

Diru falsuas paguetea.

Itioren caltean, jagocon baño gueijago gastetea jantsietan, jocoetan ta jan edanetan. Aguertu es badau saldu daben gausiaren erracuntsa andi ta escutua.

Calte eguitea bates bere echeetan, solo ta basoetan, ostuagas, ebaguijagas edo sua emonagas.

Ugasabari menpecoac costau isan dan baño gueijago contu imintea.

Lagun arteco tratuan, gueijago bere aldera tiratutea irabasteetan, bestearen caltean.

Dempora ascoan jaubeari biurtubarie bere gausia egotea.

Tratu besteendaco caltegarrijac eguitea.

Es eguiteac. Berba emona edo tratu eguñia es gordetea.

Aloguerian biar dan biarric es eguitea.

Aloguera es paguetea edo itioren caltean lusatutea pagua.

Erijotsaco testamentu edo aguinduc es eguitea.

Une surtsen ondasunac artutea, edo eurai ondo es beguiratutea.

Eleissiaren ta erriarenac norberen provechuan edo contu ta arduraric bague gastetea.

Eguin biarra daucanac, es itioren caltea eragostea.

Premiña andijan dagosanai es limosna eguin edo lagundutea.

Gausa topaua gaitic, jaubea billatuteco aleguñic es eguitea.

8.^{on} MANDAMENTUA.

Pentsamentuac. Juisijo edo sai-jo charrac besteac gaitic eguitea.

Berbac. Onetarico juisijoac beste batsuei aguertutea.

Gausa escutua eta isillic egoteco berba emonicoa, aguertutea.

Bestearen ondra eta isen onaren
contra berba eguitea, dala eguijas da-
la gusurres.

ñioren contra berbeetan diardube-
nian gustus entsutea, edo berba era-
sotea.

Eguja isanarren bere, bestearen ar-
galtasun escutua, aguertutea.

Eguiquerac Asarreac eta nas-
teac ereitea.

Es dirian gausac aguintarijai aguer-
tutea.

Juesen aurrean declarasifio edo au-
torquisun gusurrescoac eguitea.

Gusurracas galerasotea, mesederen
bat besteac isan daijan.

Es eguiteac. Es eragostea alda-
la, inorgaitic charto berbetea, bates
bere menpecoai.

Eguinic esaminia onelan, confesi-
ñoan astuten dirian pecatuac, gueldi-
tucó dira parcatuac, es dagoala beste
eguin biarric gomutara badatos, ur-
rengo confesifioan esatea baño.

Damutasunaren! gueigarrijac.

Neure arimia ¿ser ete da pecatua?
Millaca Aingueru egusulja baño eder-
ragoac dagos impernuan diabru biur-
turic pecatu bate gaitic. ¿Ser eguin da

aren edertasun, jaquiturija ta beste
doaiacas? Pecatu batec iruntsi ditu da-
nac, eta ichi ditu illinti balts eguinda.
¿Seimbat gach isan es dira eta dagos
munduan? Seimbat gausa negargarri?
eta ¿noc eguin ditus? Pecatuac. ¡Ay!
eta arima asco dagos betico impernuan
pecatu bate gaitic. Pecatu mortal bat
da naicua condenetaco. ¡Anchinatic
egon nindequean ni impernuan bada,
isanes balits Jaunaren ontasun neurri
bagea, eta esan egongo nigas orain
erruquitasunic! ¿Selan ichi ete dabe
nire arimia arembeste pecatu nie eguin
dodasanac? ¿Se calteac eguin isan da-
bes nire ariman? ¿Eta nie ser icharoten
dot pecatua gantic? ¡Ay! nire errucar-
rija! Ainbeste Aingueru impernuan
pecatu bate gaitic ¿eta ascos gueijagoc
ser eguin ete dabe neure ariman? Se-
lan bildurtuten es nas? ¿Es dago ben-
turas neure onetan impernuaren ao
icaragarrija, ni iruntsiteco prest? ¡O
pecatua gachic andijena! ¿Noc gorrotu
isan seinquesan biar dan bestean! Da-
mu dot milla bidar, neure Jaungoicoa,
pecatu eguina.

Baña, ser eguin dot nie? ¿Benturas
pecatu bat bacarric? Baña es, asco eta
asco dira nire pecatuac. Eta ser isan-

¿o nas ni orain Jaungoicoaren aurrean gustijau pecatus josiric? Esin neique nic jaso neure arpeguija Jaunaren aurrean. Auspasturic bada Jauna escatuten deusut neure pecatuen damutasun eguijasco bat.

¿Se soraquerija isan da nirea? aissialaco arroquerija bate gaitic, gustu sital ta arin bate gaitic, galdu dodas betico neure arimia serua eta Jaungoicoa, eta euren ordes guelditu nas diabruen ca-teetan ta irabasi dot inperua. ¿Neure senian nago?

Neure arimia, beguiratu eguisu curitse atara ¿nor da bertan oseguric dagoana? ¿es da Jesus gustis santua eta gustis ona? Eta noc imini dau curut-sian? Aita beticoaren borondateac. ¿Eta ser gaitic? Seure pecatuac gaitic; seure pecatuac, neure arimia, bai, seure pecatuac curutsetu ta ill dabe Jesus maitegarrija. ¿Suc eguin pecatua eta Jesus ona ill! ¿Eta Jaungoicoa ill seure pecatuac gaitic? Eta ¿es dosu negar eguiten? ¿es sara negarres urtuten? Jesus ill da curutse gogorrian su gomutan saucasala, su gaitic erregututen dagoala bere Aita Serucoari. Eta ¿es dosu Jesusen gomutaric, sartua sagosala munduco soraquerijetan?

Jesusen erijotsan, egusquiya illunduten da ¿su barris tristetuten es sara? Arrijac urratuten dira ta sure biotsa dago osoric? Illarrijac idiguiric emoten ditues euren barruan dagoan illac eta suc ¿es dosu gura agueru eta confesau seure pecatuac? Gaistoangoa sara Jesus curutsetu eben judeguac baño, biots gogorragoa Longinos soldadu bere bularra lantsias irago ebana baño, Jesusen penac bigunduten es babsaitue, bada arec biurtu sirian Jerusalemara bularrac joten eta au santutu san betico.

¿A neure Jesus ona! es deusut nie gura sarratu neure biotsa, ni nas ill bear nintsana, ill nadi bada pecatura; gorrotu dot pecatua. Neure Aita serucoa, pecatu eguin dot seure contra eta seure aurrean, es nas ni duin, isan naiten deitua seure semea, emon eguidasu negarresco oguija es nadin secula asetu negar eguites neure pecatuac gaitic. Seuc bacarrie, Jauna, emon daiquedasu biar dodan damutasuna.

¿O Marija pecatarijen ama lastana! escatu ejosu seure seme Jaungoicoari niretsaco erruquitasun eta parcasinoa. Neure Aiguera Jagola, seruco santa justijac, isan saquidase bitarteco onac,

Adetsi daquidan aren bestean iraindu
dodan Aitaren grasija eta adisquideta-
suna. *Aita gueurea, Salvea eta Neure
Jesu Cristo Jauna &.*

Gogo edo Proposituaren gueigarrijac.

Entsun eguisu pecatu mortal batec
irabasten daben inpernuaren irudi la-
bur ta arin bat.

Lecua. Da illuna, bere ormac sus-
conc, goija sua, beia sua eta gustija
asufre sua. An egon bearco dau con-
denauac secula betico, egon daroesan
legues sardinae sestoan, mas morduac
tolaran eta ladrilluac laban, sirquinie
esin eguin leiqueala. ¡Se presondegui-
jen itsela!

Laguntasuna. Inpernuco lagu-
nac dira borreru biots gogorrecoac,
diatru icaragarrijac eta penitentsijarie
bague ill dirian gaisto gustijac, mun-
duaren asieratic arrasquero; gentil fe-
de bacoac, sinis bagueac, biots gogor-
recoac, birnatsalleac, jairic gorde es
dabeenac, berecoiac, euren eguin biar-
rac bete es dituesanac, guison illsa-
lleac, aserracuntsas ta odoles beteri-
coac, berba baten munduan isan dan
ondarric ichusijena; baña gustijen ar-

tean borreru oquerrenac eta errabijas
betericoenac isango dira gaistaqueri-
jaco lagunac. ¡Sé betito laguntasuna!

Soñuta jolasac. Diadar asarra-
tuac, garrasi tristeac, aguin ots bildur-
garrijac, sotifnac, negarrac, maleuac.
Irudi eiquesu presondegui bat, nun
dagosan presoac cates eta burdiñas lo-
turic, eta presondegui au su gar bat
eguiten dala, inoc arduric artuten es
dabela itsaliteco sua, borreruac barris
aren larritasunari beguiratuta, barre
eguin daroela; madaricasño eta birao
icaragarrijac gausaric santinonari dira
ango soñuac tormentu eta dolore se-
cula es entsunac euren jolas ta olgue-
tac. ¡Se soñuac! ¡Se jolasac! ¡Eta Jaun-
goicoac dirauan artean!

Eta ser gueijago? ¡Onic bat beres, esta
onaren icharopenic bere, charric gus-
tia eta es amaitu, es guelditu, es gui-
chituco dirian, icharopen bague. Da
au tormentuen toquiya, negarrresco
errija ta aserracuntsaco posua.

¡Se arriscu ta ichutasuna es da, une
baten bere pecatu mortalian bisi da-
nena!

¡Selan bada artuten es desu gogoa,
bertatic, orainche, confesño on bat
eguiteco, gueijago lusatu bague?

Eguisu bada, seure arimia gaitie, eta erabagui eguisu oraindisec betico, ichitea arimiaren arriscuco lecuac, lagun eta adisquidetasun galgarrijac, canta, soñu ta jolas es garbijac; parcatu eguisus irainiac, biurtu inoren ondia eta ondasun quendu ditusunac. Eta onelan eguinic es sara jausico inpernuan.

Ondo confesetaco jaquingarrijac.

Icharoten badagos confesetaco beste hasuc sugas batian, artuco dosu jagotsun lecu berba asco baric eta baquean, icharon biar dosun demporia iragoten dosula damutasun eta proposituan gueijago sendatuten. Elduten jatsunian aldija confesetaco, joango sara seure confesoria gana, eta bere aurean belaubicoturic, eguingo dosu astiro, *Curutse santuaren* & eta ondo jaquinic sagosala Jesu Cristoren oñetan, burua umiltasunes beratuta esangodosu. *Ni pecatarija, confesetan natjaco* & eta beran amaturic urreratuco sara confesonariora nun sarreran esangodosun, *Ave Maria purisima* edo *Bedeincatua isan bedi Sacramentu gustis santua*.

Au eguinic esango dosu. 1.º Aita arimacoa, onen beste dempora da len confesau nintsala, (eta esan emen eguinac, illac edo urteac.) 2.º Cumplidu neban edo es penitentsija. 3.º Badaucasu ser esan biarric lenagoco confesioetatic, esan eguisu dan moduan, alan lotsas edo astuteagaitie ichi badosu confesau bague. Urrengo esangodosus pecatuac.

Sertaric gorde biar dan. 1.º Lar urrindi pecatuac confesetatic, esanas, confesetan dodas eguin dodasan pecatu gustijac, edo pecaturen bat eguin badot 2. Eser esaten es dabeen berbeetatic, seintsuc dirian, confesetan dot guichi maite isan edo serbidu dodala Jaungoicoa, es dodasala bete biar dan bestean neure bisieraco eguin biarrac, es daroadala maitefu neure lagun progimua, eta onetaricoetarie.

Selan esan biar dirian pecatuac. Ausi es dosun aguinu edo mandamentuan es dago sertan guelditu, urratu dosunian barris esan seinque; lenengo mandamentuan difiot.... (eta emen esango da esamifian billatu dana, bere contsentsijan dagoan moduan, eta bardin bigarrenian ta besteetan.)

Onelan esango dosus, Jaungoicoa-

ren eta Eleissa Ama santuaren contra eguin dosusan pecatuac, baita seure estaduco eguin biarren contracoac.

Ardura isan eiquesu eguitean confesiño umilla eta eguijascoa.

Umiltasuna dago, esatean pecatuac barruco lotsa ta miñas, gorputseco errespetu ta itseltasunas eta berba argui, garbi ta modu batera aitutecoacas, eta besteari erruac es esarriagas.

Eguijascoa isatea barris dago, eguitean confesiño osoa esanas. 1.º Seimbat dirian pecatuac, edo jaquin leiquean bestean urreratuas dirianetara, guichitu es gueitu bague pecatuac malicias. 2.º Esanas pecatuac beste erabatecoac eguiten dituesan inguruacas, esateraco ostu bada gausa santuren bat, esan biarda, ostu dala, eta gausa ostua eleissacoa edo santua isan dala. Baña nos baiten es badaquisu onelango gausarie dagoan edo es, esan eguisu gach bague contsentsijan dagoan moduan.

1.º Beguiratsecoa. Biots sendoagas goitu biar dosu, cristinauari jagocan legués, norberen argaltasunac confesoriari esateac, dacarren atseracuntsa eta lotsia, gomutauagas onan eguiñic, aldentuden sariala confesiño

charrac eguitearen arriscutic, bai eta inpernuco pena icaragarrietatic, eta jadetsiten dosula seu gaudiic garaitsaric sorionecoena, oinperatu ta sapaldu diabrua, eta irabasi seure arimiarentsat Jaungoicoagasco baquea ta betico soriontasuna.

2.º Ascoc eracusten dabe, obato eguiña dala, aurrerengo esatea lotsaric gueijen emoten daben pecatua, ser gaitic guero besteac esango dirian erasago.

Confesau ostean entsun eguisus atentziños ta umiltasunes confesoriac esaten deutsusan herbac eta icasbideac, eta arturic penitentsija, belaunbicotu ta lurrera beguijac dosusala esango dosu, aren bestean iraindu dosun Jannaren oinetan. *Neure Jesu Cristo Jauna etc.*

Comuniño aurretic gogoratsecoac.

Arima cristinaua, bistu eguisu seure fedea, an sagrarloan, copoe atan, anche ostia santuan dago diñuana; *Es badosue jaten guisonaren semearen araguija, eta edaten es badosue bere odola, es dosue euquico seuecgan bisitsia. ¡Baña nor sara su au diñosun au? ¡Eta nor nas ni?*

Onan berba eguiten dabena da Jesus, Jaungoicoaren semea, nigaitie guison eguiña Marija Birginiaren erraija garbijetan, Belenen jaijo sana, amodijoso Sacramentu au, erijotsara eroango eben arratsian ichi euscuna, Calbarioco mendijan ni gaitie ill sana bera, irugarren egunian bistu sana, eta seruetan dagoana; gustis santua, gustis jaquintsun, gustis altsua.

Eta ni barris nas une errucarribat, ¡baña ser isan nas? ¡Ay nire damua! leijalesa sarri, bai nie pecatu eguin dot eta aurrerago imini dot, ¡O neure Jauna! aberesco atseguin bat, seure adisquidetasuna baño; esquer gaitocoa seure mesedietara, ichusiagon eguin nas demoniñuac eurac baño, seure contra jarrias.

Eta suc neure Jaungoicoa edertasun amai baguea ¡gura dosu etorri nigana? ¡Nundie niri arenbeste soriontasun, Jesus Jaungoico eta guison eguiascoac gura isatea nigana etorri?

Baña ¿sertan dator? Datorquit es barric adoran daguidan, bai eta isateco nire janarija, nire arimiaren oguija. Noc sinistu leiquean Jaungoicoac berac esan es baleu; *nie emongo deusuedan oguija da neure araguija?* Eta

ogui dontsu onegas emoten deuseu bera dan gustija, gorputsa, odola, arimia ta jaungoicolasuna. Eta gustis emoten danac ¡Ser ucatuco deust? ¡Se soriona dan bada nirea!

Baña seure itseltasunac eta bildurac icara eraguiten badeutsee seruco aingueruai seure aurrean, ¡Selan icaratuco es nas ni, seure mai santura urreratuten? Icaras eta dardarás nago neure Jesus ona; es nas ni duin, es nas isango bere iños su artuteco, baña suc aguintuten deustasu eldu naitela seugana; eta oraidiño, guetjago, seue somaituten nosu arimaco erijotsias, jaten es badot seure maijan; gura dot bada eguin seure borondatea, gura dot seure botico adisquidetasuna. Erruquit saite Jaun maitea errucarri eta esqueco onegas; Marija neure ama maitegarrija, seuri deies nago, apaindu daisun nire arimia, seue daquisun moduan isango dala seure semearen gogocoa.

Onelaco gomutacas joango sara comuniño santua emoten dabeen altarrans, umiltasunes ta gorputsa era onian batuta, beguijac berunts beguira eta escuac ondo conponduric, eta belaubicofu esquero artuco dosu escuetan sapl surija edo emoten deustuena, eta

iminiric bera ocospeian, elduten danielian seu gana saserdotea jasoco dosu burua, es beguijac, idigui aoa es larreguijan, atera ser bait miifia eta es atsera sartu, saserdoteac bertan imini artean ostia santua. Comulgau eta bendisiñoa artu esquerero, joango sara seure lecura etorri sarian eran.

COMUNIÑO OSTEAN.

Beguiratsecoa. Comulgau esquerero egongo sara ondo baturic ordu erdijan, edo guichienes ordu laurenian, doe andi onen gomutan. Arren es eiquesu eguin Judasen moduan, señec a oan copaua ebala urten eban apaltoquitic, eta es beste cristinau batsuen moduan bere, seintsuc sorigaistoco aren pausuetatic urten daroen aibat lasterren eleissatic comulgauricoan. ¡Ay errucurrijac! guichienes, onec eracusten dabeena da, diriala gaisqui asijac eta lautu bacoac. ¡Es da ba eguija, lauta ondo asija isateac, iracasten dabela, andiqui bat datorrenian gueure echera gu ondretan, eguin biar deutsagula arrera ona, eta berba aldi eraonecoa? Eta onan eguin biarrian emongo es bagueunsquijo arpeguiric, eta eche-

tic urtengo baguendu. ¡Ser esango litsate gu gaitic? ¡Es litsateque errasoiás esango es gareala guisonen artean bisitecoac es bada abereacas? Ona emen bada ser eguiten daben comulgau ostein bertatic eleissatic urtetan dabenac. ¡Baña es da eguiguera au gaisqui asiena bacarric, da ones ganetic burubacotasun andija. Eta eguijas, ¡badago burubacotasun andijagoric, berés eser es daucanac euquitea beragan, ondasun gustijen jaubea bere oneraco etorrita eta aberastuteco aleguific es eguitea baño? Es saite onelangoa isan, adorauguisu, esqueronac emon eijosus, eta escatu guero gura dosun gustija seru ta hurraren jaube oni.

Comuniño ostein gomutetacoac.

¡O arima sorionecoa! seure gorputsian eta seugan daucasu aingueru gustien Jauna, seure gorputsa da Jesus Cristoren sagrarioa. ¡Selaco esquerac emon neiquesus, Jauna, mesede onegaitic? ¡Su Jesus nire barruan! Eta ¡mundic niri arenbeste soriontasun? Birgina Marija, esquin eijosus seure seme Jaun oni seure amodijoas batian neure biotseco gurari esquer onecoac;

seure Jesuseganaco amodijo isitua, gura neunque nic orain euqui. Aingueru santuac alabau eguisue Jauna, eta emon eifosues nic esin neiquesan esquer onar. Nic, neure Jesus maitea, bateguin gura neunque neureesquer ona seruan eta lurrian emoten deutsuesan ondra eta alabantsacas. Nic adoretan saitut neure barruan, nun sagosan; seu sara neure Jauna, neure Aita, neure Salbaguillia, neure bisitsia eta leharopena. Bedeincatu eta alabausaiesala, Jesus, Sacramentuan seruac eta lurrac eta eurretan isatea dauqueen gustijac; gura deutsudas esquini munduaren asieratic eguin dirian obra on gustijac eta nire biotseco gurarija da, gueitu daitela gueruago ta gueljago seure isen santuaren glorija, eta esagutu dajela gustijac seure anditasun eta ontasun pare baguea.

¡Badasausu neure arimia seimbaterarocoa dan seure sorientasuna? Es daucasu orain ser gaitic esan sareala eser es euquija, seungan dago orainche ondasunes betetia.

Es saquiquedas bada, neure Jesus ona, aldendu neure dongatasuna gaitic, ichi bague seure ugaritasunen aguergarri bat. Su sara Jauna nire ar-

guija, nire osasuna, nire bisitsia; arguitu eguisus nire illuntasunac, sendatu nire argaltasunac eta emon eguidasu, bisi isan naitela seure borondatea eguiteco.

¡Eta nic ser emongo deutsut Jauna onaco mesede onegaitic? Su gustiori emon saijatas niri; ni bere bada gustijau emoten naijatsu suri betico seurea isateco, eguisu arren alan isan nadilla. Artu eguisus, Jauna, nire memoria, adimena eta borondatea, nasana eta daucadana, seuc emonac dira eta nic banatuac, susendu eguisus seugana, eta sure niganaco bisita au isan dedilla, asqueneco orducoaren esaugarria. Amen.

Urrengo datorren erreagua, comulgau ostean eguitea gaitic. Cristo curutsetuaren irudi baten aurrean, erre gututen dala onés ganeti, Aita Santuaren intensiñora, irabasi leique indulgensija oso bat, sein iratsi leiquean Purgatorijoco arimai.

ERREGUA.

Ona emen ni jo neure Jesus ona eta chito gosoa! belaunicotuten nas seure aurrean, eta neure arimaco gurariric

isituenas erregututen deutsut, esarri daisusala arren neure biotsian fede, icharopen eta caridadeco gomuta bisijac, neure pecatuen damu eguijasco bat, eta euretaric urrinduteco borondate gustis sendoa, nic gogoratuten dodasan artean neure biotseco amodijo eta penaric andijenagas seure bost saurijac, beguijen aurean daucadasala, David igarla santuac seure buruan jo neure Jesus ona! esan ebasan berba oneec.

Sulatu deustes escuac eta oiñac, iracurri ditues neure asurrac gustijac.

Mesa santuraco eguiquisun onac, frutu ugarijagoac bera entsutetic aterateco.

MESA AURETIC.

Eleissarunts soiasanian contueguisu soiasala Calbarioco mendira, nun aguertuco dan seure beguijen aurean, icusgarriric andi eta samurrena, selan Jaungoicoac guison eguinda curutsera igoten daben, esquintsen Aita serucoari bere erijotsa gogorra gueure pecatuac gaitic, curutse atan dagoala untse

josiric seruaren eta lurraren bitartean, baqueac eguiteco Jaungoico eta guisonen artean. Gogoratu eguisu Mesaco sacrificioa dala curutsecoa bera Trentoco batsar santuac dinanetic, beste desbardintasunic bague, es bada altaran es dala odolice isuriten.

Esagaturic bada, guertaera onac gueituco deutsusala Mesa santuco frutuac, Mesa aurretice escatu eijosu Jaunari grasija bera ondo entsuteco eta bide bates esquini eijosu Sacrificio santu au; 1.º bere glorijaraco, gausa gustijen ganian daucan jaubetasunaren esagarritsat. 2.º Jadetsiteco bera gandie parcasifioa ta erruquitasuna. 3.º Esquer onaren gomutan eguin deutsusan mesedeac gaitic eta barrijac eguin daguisusan.

MESAN.

Modu ascotara cristinan onac entsun daroe Mesa santua, batsuc iracurten ditue libururen baten mesaco orasifioac, beste batsuc erresetan dabe Errosarijo Santua edo Aita gueureac eta Ave Marijac, Pasifio Santuaren gomutan. Onetarie autu seinque ondoen derichasuna. Baña isan es dedin gustija

aasco erresua, gorde eguisus Mesa
 Santuco iru alde leneenataraco seintsuc
 dirian Ofertorioa, Consagrasiañoa eta
 Comuniñoa, biotseco eguiquisun batsuc,
 irasartuteco seure fede eta debosioñoa,
 eta elan:

OFERTORIOAN.

Sacerdoteac ostija patenan jasoric
 daucan artean esquinitten Aita seru-
 coari; bateguisu seure esquinija saser-
 dotearenagas, eta beguitanduric sago-
 sala altarasantuaren ganian, esan eguisu
 seure biotsaren barruenetic; artu egui-
 su, Aita serucoa, eguiten deutsudan
 neure arimiaren esquinija bere alme-
 nacas, gorputsarena bere sentsunacas,
 seureac dira eta seu serbiduteco imin-
 ten ditut, eta altara onen inguruan da-
 gosan aingueruen aurrean esaten dot,
 es dodala gura eurasacas balijau, seure
 borondatearen guraris es bada, au da,
 seure aguiunduac gordetaco; neure bio-
 tseco gurariric bisiena da, neu gustijan
 seuri emotea, eta al dodan artean, era-
 gotea gueituten seure isen santuaren
 glorijs, biar eguiñas neure arimiaren
 salbasiañoan eta neure lagun progimna-
 renian. Euntsi eguidasu seure grasijas,

Aita erruquiorra, iraun daguidan gogo
 onetan asqueneco arnasara artean.

Au eguiñic batu saite seure barruan
 eta beguiratu eguisu, setan seure bisi-
 modua es dagoan bardin esquinta one-
 gas, bere ganian artuteco neurrijac
 egon daiten aurreruntsian.

Consagrasiañoan edo Jasoeran.

Beguitandu eguisu une itzel ta santu
 onetan, nois sacerdoteac jasoten daben
 ostia santua, anche dagoala estalduric
 ogui eta ardauaren irudijan seure
 Salbaguilla maitea, curutsetu eben
 borruerac, icusi eben guisan odoles
 eta sauris beteric sure pecatuac gai-
 tic; eta astuta beragas, erregututen
 deutsalarijotsaco larritasunen erdi-
 jan bere Aita beticoari sure oneraco,
 parcatu daguisusan seure pecatuac,
 esanas bere biots maitearen indar gus-
 tijas; Aita, parcatu eijesu.

Gomuta onen ostein erregutu egui-
 su Jesusegas battian, eta incauric seure
 bequijac bere host saurijetan, seintsuc
 San Buenabenturac diñuanes, dirian
 igues lecu batsuc, diadar eguiten da-
 beenac gure mesedian; eurefatic baco-
 chian escatu eguisu grasijaren bat.

Escumaco escuco saurijan, erregutu eguisu Aita Santua gaitic, Obispo Jaun, saserdote ta misionarijac gaitic, munduaren salbasinoraco eguiten dituesan aleguinae isan daljen frutu ugarija.

Esquerreco escuco saurijan, escatu eguisu gentil, judegu, erege, sismaticu ta cristianu charren biurreria gaitic.

Escumaco oineco saurijan, erregutu eguisu seure echeco eta senideac gaitic, seure adisquide eta onguillac gaitic, eta Jesu Cristoren aguindua betetearren seure arrerijoac gaitic bere.

Esquerreco oineco saurijan, erregutu eguisu Purgatorijoco arimac gaitic, berarisco moduan barris, seure orasiñoetan escubide gueljago dauqueonac gaitic

Biotseco saurijan, escatu eguisu seuretsat, imini eguisus seure ardura gustijac, seure neque, pena, ta bildurrac, seure icharopen eta gurarijac, maite-tasunesco sugarres heteric dagoan biots onetan

COMUNIÑOAN.

Mai santuan comulguetaco soriona euqui es dosun egunetan, es eguisu ichi eguin bague arimaco edo guraris-

co comuniñoa, sein dan batsuetan, Santa Teresac dinuanes, arenbeste probechuea sein mai santucoa.

Arimaco comuniñoa es da besteric es bada, debosinoric andijenagas eguitea iru gausa, seintsuc dirian; contrinosco eguiguera bat al dan bisiena, Jaungoicoaren amodijosco beste eguiguera bat, eta irugarren, gurari bisi bat artuteco Sacramentu gustis santu altara-coa guertaerarie onenacas.

MESA OSTEAN.

Examinau saite dempora labur batian, selan eguin dosusan Mesa santuco gogorasiñoac, selan igaro dosusan bere iru alde leneenen dempora bitarteac se ardura euqui dosun gordetaco egoera biar dana eta urrinduteco pentamentu biarresac. Billatuten badosu ondo joan jaisula, emon eijosus Jaunari esquerrac, eta bestera bada, parquescatu eijosu.

Eleissatic urten baño lenago escatu eijosu Jesusi, bedeincatu daguisala egun ataco seure eguiguera gustijac.

ERROSARIO SANTUA.

Es da erras billatuten oneraspen edo debosño, Marija Birgiña gustis santuaren gogocoagoric, arimendaco oncarrijagoric eta inpernuarendaco bildurgarrijagoric, Errosario santua baño. Asco da esatea, Jaungoicoaren Amac berac eracutsi eutsala debosño au, aita Santo Domingo Gusmanenari, osagarri eguijasco bat legués munduco preminac erremedijetaco, eta guisonai emoteco salbetaco biar dabeesan grasijac.

Erresau eguisu bada egunero al dosun debosñoas, gomutauagas sagosala herbetan amari onenagas eta Jaungoicoaren amagas; esango dosus bada bere orasñoac astiro eta garbiro, es sareala erresetan asten, lagunac amaitu baño lenago. Asico sara bada onelan.

Curutse Santuaren & Neure Jesu Cristo Jauna &.

Y Domine, labia mea aperies.

Et os meum annuntiabit laudem tuam.

Y Deus, in adiutorium meum intende.

Domine, ad adiuvandum me festina.

Y Gloria Patri, et Filio et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

Onen urrengo esango dira misterijo gosotsuac, dolorescoac edo glorijosuac, gomutau ditesen, emen doiasan ordean.

MISTERIJO GOSOTSUAC.

Astelen eta Egüenetaraco.

1.^o Misterijoa. Jaungoicoaren Semearen Encarnasiñoa, edo guison eguitea. *Aita gueurea & Amar Ave Marija & Eta Gloria Patri &.*

2.^{en} Misterijoa. Ama Birgiñiac Santa Isabeleri eguin eutsan bisitia. *Aita gueurea & Amar Ave Marija & Eta Gloria Patri &.*

3.^{en} Misterijoa. Jaungoicoaren Semearen Jaijaqueria. *Aita gueurea & Amar Ave Marija & Eta Gloria Patri &.*

4.^{en} Misterijoa. Ama Birgiñiaren Purificasiñoa. *Aita gueurea & Amar Ave Marija & Eta Gloria Patri &.*

5.^{en} **Misterijoa.** Jesus galdu eta templuan aurkitu ebenecoa. *Aita gueurea & Amar Ave Marija & Eta Gloria Patri &.*

MARIJARI AGURRA.

Jaungoicoac gorde saisala, Aita Jaunaren alabia. *Ave Marija bat.*

Jaungoicoac gorde saisala, Seme Jaunaren ama. *Ave Marija bat.*

Jaungoicoac gorde saisala, Espiritu Santu Jaunaren esposia. *Ave Marija bat.*

Jaungoicoac gorde saisala, Trinidade gustis Santuaren templu ta lecu santua. *Gloria Patri & bat.*

Urrengo esango da Letañia bere bertsu eta erreguas, misterijoen asquentian dagoan legués.

MISTERIJO DOLORESOAC.

Martisen eta Barijecoetaraco.

1.^o **Misterijoa.** Jesusen Orasiñoa Gesemanico ortuan *Aita gueurea & Amar Ave Marija & Eta Gloria Patri &.*

2.^{en} **Misterijoa.** Jesusi pillar-

rian loturie emon eutsesan asoteac.

3.^{en} **Misterijoa.** Jesusi arantsasco coroa imini eutsena.

4.^{en} **Misterijoa.** Jesusen curutsias solbardan Calbarijora igon ebanecoa.

5.^{en} **Misterijoa.** Jesusen curutsean josi eta ill ebenecoa.

Eta onen ostean esango da Marija-ren Agurra goijan legués, guero Letañia bertsu eta erreguas.

MISTERIJO GLORIJSUAC.

Domeca, Egüasten eta Sapatuetaraco.

1.^o **Misterijoa.** Jesu Cristoren Bistueria illen artetic.

2.^{en} **Misterijoa.** Jesu Cristoren igoeria sernetara.

3.^{en} **Misterijoa.** Espiritu Santuaren etorreria.

4.^{en} **Misterijoa.** Marija Birginiaren jasoeria sernetara.

5.^{en} **Misterijoa.** Marija Birginiaren Coronasiñoa.

Guero esango dira, Marija Birginiari Agurra, Letañia, bertsu eta erreguas.



LETAÑIA.

Kyrie eleison *Erantsuten da bardin.*
Christe eleison. *Bardin.*
Kyrie eleison. *Bardin.*
Christe, audi nos. *Bardin.*
Christe, exaudi nos. *Bardin.*
Pater de cœlis Deus. *Erantsuten da,*
Miserere nobis.
Fili Redentor mundi Deus. *Bardin.*
Spiritus sancte Deus. *Bardin.*
Sancta Trinitas unus Deus. *Bardin.*
Sancta Maria. *Erantsuten da Ora pro*
nobis. Bardin urrengoetan.
Sancta Dei genitrix
Sancta Virgo Virginum.
Mater Christi.
Mater Divinæ gratiæ.
Mater Purissima.
Mater Castissima.
Mater Inviolata.
Mater Intemerata.
Mater Immaculata.
Mater Amabilis.
Mater Admirabilis.
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris.
Virgo Prudentissima.
Virgo Veneranda.

Ora pro nobis.

Virgo Prædicanda.
Virgo Potens.
Virgo Clemens.
Virgo Fidelis.
Speculum Justitiæ.
Sedes Sapientiæ.
Causa nostræ letitiæ.
Vas Spirituale.
Vas Honorabile.
Vas insigne Devotionis.
Rosa Mystica.
Turris Davidica.
Turris Eburnea.
Domus Aurea.
Foderis Arca.
Janua Cœli.
Stela Matulina.
Salus Infirmorum.
Refugium peccatorum.
Consolatrix Afflictorum.
Auxilium Christianorum.
Regina Angelorum.
Regina Patriarcharum.
Regina Prophetarum.
Regina Apostolorum.
Regina Martyrum.
Regina Confessorum.
Regina Virginum.
Regina Sanctorum omnium.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Ora pro nobis.



Erantsuten da. Parce nobis, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
Erantsuten da. Exaudi nos, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
Erantsuten da. Miserere nobis.

Bertsua.

Ora pro nobis, Sancta Dei genitrix.
Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.

Erregua.

Gratiam tuam, quæsumus, Domine,
mentibus nostris infunde, ut qui An-
gelo nuntiante Christi Fili tui Incarna-
tionem cognovimus, per passionem ejus,
et Crucem ad Resurrectionis gloriam
perducamur. Per eundem Christum
Dominum nostrum. Amen.

ERROSARIJO SANTUAREN

Indulgentsijac.

Benedicto XIII.^o emon eban eun
eguneco Indulgentsija Errosarijoco co-
frade es dirianentsat, erresetan dabe-
enian errosarijo osoa edo bere irugar-

ren sati bat contrisiñoseco damuas, *Ai-
ta gueurea* eta *Ave Marija* bacoeha
gaitic; eta pareamen oso edo plenarija,
urte gustico egunetan erresau dabee-
nentsat, urteco egun baten irabáste-
coa, confesau eta comulgau esquero.

Pio IX.^o barriestu situsan esan diri-
anac, eta gueitu eutesan, amar urte
eta amar berroguei eguneco induljen-
sijac, echean edo eleissan erresetan
dabeenentsat. Eta iru bidar astean er-
resetan danian illa baten barruan, in-
dulgentsija osoa illaren asqueneco do-
mecaraco, confesau eta comulgau es-
quero, erresantea gaitic bere intensi-
ñora Eleisa edo oratorijo baten.

Indulgentsija onek irabasteco biar
da erresau, Aita Santo Domingoren
erligiñoco edo beste saserdote escubi-
dea daucanac bedeincaturico errosari-
joacas.

Indulgentsijac Errosarijo san-
tuo anai edo cofrade diria-
nentsat.

Beguiratsecoa. *Errosarijoco co-
frade isateco* biar da, *escubidea atara-
co* daucanac imintea, *cofrade isan gu-
ra* dabenen isena *cofradijaco* liburuan.
Indulgentsija osoac cofradijan

sartuten dan eguneraco. 1.^a Confesau eta comulguetearren. 2.^a Confesau esquero, comulguetearren Cofradijaco capillan, eta erresanagas Errosarijoaren irugarren alde bat, erregututen dala Eleissaren baquea gaitie.

Indulgensija osoac illaren lenengo domecaraco. 1.^a Confesau eta comulgau esquero bisitetearren Errosarijoco capillia, Aita Santuaren intensifora erregututen dala. 2.^a Confesau, ta guero comulguetearren Errosarijoco capilla edo altaran, erregututen dala Aita Santuaren intensifora. 3.^a Confesau eta comulgau esquero ibiltetearren Errosarijoco cofradijan eguiten dan prosesioan erregututen dala len esan dan intensifora.

Indulgensija osoac Marija Birgiñiaren saspi jai leneen taraco. Egun bacochian irabasi leique bat, confesauta edo contrinosco damuas bisitetearren len esan dan intensifora cofradijaco altaria. Esan dirian jaijac dira oneec; Consesifoa, Jaijaqueria, Presentasifoa, Encarnasifoa edo Andra Marija martico, Purificasifoa edo Candelarijo, Bisitasifoa eta Asunsifoa. Bai eta egun onetan esan dirian guertaeracas ibiltetearren cofra-

dijaco prosesioan irabasi leique indulgensija oso bat. Onen ganetic Andra Marija marticos eta Asunsifos, irabasi leiques bacochian indulgensija oso bat, lenengoan confesau ta comulgauta, errosarijoa erresetea gaitie, eta bigarrenian bardin Sacramentuac arturic cofradijaco altaria bisitautea gaitie, len esan dan moduan erregututen dala.

Errosarijo santuco misterioen egun gustijetan. Confesau comulgau eta bisitauagas esan dan intensifora, Errosarijoco altaria, irabasi leique bacochian indulgensija, oso bat. Guertaera ta eguinbiar bardiñacas dagos indulgensija bardiñac, aprillen irugarren domecan, Gorpustis, eleissaco patroiaeren egunian eta garisuman norberac auqueratuten ditusan barijeco bitan.

Errosarijoco domecan. Lenengo besperetatie, urrengo egunian egusqui ja sartu artean confesau eta comulgau esquero, Errosarijoco capillia edo altaria bisitauagas esan dan intensifora, irabasi leiques illaren lenengoco domecacoenen ganeti, arenbeste indulgensija sein bisita eguiten dirian; asquenengo oneec dira bardin cofrade es dirianentsat.

Beste indultensija asco osoac es di-
rianac dagos Aita santuac autortuac,
Errosarijoe erresetea gaitie, capilla
Errosarijoea eta gueisoac bisiteta
gaitie eta orasiño biotsecoa edo men-
tala eguitea gaitie.

**Erijotsaco orduraco parca-
men osoac.** 1.^a Errosarijo oso bat
aste barruan erresau dabenentsat. 2.^a
Confesau eta comulgau dirianentsat.
3.^a Confesauas edo contrinosco damuas
Errosarijoea erresau esquero, Errosa-
rijoea candela bedeincatuas escuan,
lliten dirianentsat. 4.^a Sacramentuac
arturic eta Eleissa santuaren fedea au-
torturic, Salbea erresetan dabeenent-
sat. 5.^a Bardin Sacramentuac artu-
rit, Jesusen isen gosoa aos edo biotse
deituten dabeenentsat.

SALBEA.

- B. Jaungoicoac gorde saisala Erre-
guña,
- B. Erruquis beterico Ama,
- A. Bisitsa, gosolasun eta esperantsa
gueurea.
- B. Jaungoicoac gorde saisala,
- B. Seure deies gagos.
- A. Ebaren una erbestetuoe.

- B. Seugana gagos gu sispurus
- B. Sentimentus eta negarres
- A. Negarresco erri onetan.
- B. Ea bada, Andrea,
- B. Bitarteco gueurea.
- A. Biurtu eguisus gugana.
- B. Seure begui erruquitsu orrec:
- A. Eta erbeste au irago esquero,
- B. Eracutsi eguiguu Jesus,
- B. Seure sabeleco frutu
- B. Bedeincatua.
- AA. ¡O biots biguna!
- AA. ¡O erruquiorra!
- B. ¡O Marija Birgiña gosoa!
- B. Erregutu eguisu gu gaitie
- B. Jaungoicoaren Ama santea,
- AA. Meresidu daigun
- B. Alcantsetea
- A. Jesu Cristoren aguinariac.
- B. Amen Jesus.

Jaungoico Santua,
Jaungoico Indartsua,
Jaungoico Illescorra,
Gach gustietarie
Librau gaisus Jauna.

CANTARTEA.

Erdi pecatarija,
Erdi eleissara,



Jaungoicoaren berbia,
Gogos entsutera.

CANTAC.

- 1.^a Es egon pecatuan,
Es egon lusaro.
Damu isan es daisun
Alperrian guero *Erdu &*.
- 2.^a Pecatu mortalian
Etsuten basara,
Benturas inpernuan
Irasartco sara *Erdu &*.
- 3.^a Misino santu onetan
Biurtsen es basara,
Benturas urrengoetan
Bisico es sara. *Erdu &*.

CANTARTEA.

Artu gaisus Ama
Seme necatuac.

CANTAC.

- 1.^a Agur doloresco
Ama larritua,
Erreguina lastan
Erruquis urtua. *Artu &*.
- 2.^a ¡O Raquel ederra

Neques aseitua!
Gu semeoc gagos
Negarres urtuac. *Artu &*.

- 3.^a Seure biotseco
Canibet sutsuac
Sartu isan deutsus
Gueure pecatuac. *Artu &*.

- 4.^a ¡O Ama biguna!
¡O Erruquitsua!
Arren isan gaites
Seruan sartuac. *Artu &*.

CANTARTEA.

Jesus escatsen deutsut.
Nie parcasifioa
Loisas beteric nator
Gustis damututa.

CANTAC.

- 1.^a Bigundu cristinaua
Biots gogor ori,
Damus beguiratuas
Arren arimari.
- 2.^a ¡Nois arte biar dosu
Egon pecatuan,
Ieusiric saosala
Ija inpernuant
- 3.^a Deiesca daucasu

Seure Jaun maitea,
Bere besoetara
Laster joan saitean.

- 1.* Alperrie bisi isan nas,
Pentsauric baguean,
Nun isan biar dodan,
Ilten nasanian.
5.* Neure biots gustico
Jesus chit maitea,
Badaquit neu nasala.
Seure illtsallea.
6.* Eguite dongacas ta
Ibilli charracas,
Untsés josi deutsudas
Oñiac escuacas.

CANTARTEA.

Es dago serura
Beste bideric,
Seure biots gosoa
Ta ona langoric.

CANTAC.

Seruco gloria
Grasija eguifile,
Lurrera etorten da
Biots artatic.

- 1.* Aita beticoa dago,

Beguiria altutic,
Ispillu eder onetan,
Icusea gaitic.

- 3.* Seruac eta lurra,
Dagos surturic,
Egusqui eder onen,
Arguitasunetic.
3.* Birgña Amac es dauco,
Beste atseguifile,
Biots goso au baño,
Andijagoric,
4.* Gau ta egun dago,
Beti bacarric,
Jatsi bada bere,
Gueurelsat serutic.
5.* Adoran daigun bada,
Guc biots gustitic,
Biots gustis santu au,
Orain eta beti. Amen.

CANTAC.

- 1.* Jesus, arsain maitea,
Dator gaur dedarres,
Ardi galduen billa,
Arin ta negarres.
Damus eta negarres,
Nator ni sugana
Jesus jay! nic damu dot,
Pecatu eguifila

- 2.^a Ama baten negarrac,
Semea gaitsean,
Estabe ser icusi,
Onenen aldean.
- 3.^a Nora soas iguesca,
¿Esquer gaistocoa?
Arren aitu Jesusen,
Biots naibacoa.
- 4.^a Satos pecatarija,
Bide leun garbira,
Gura badosu guero,
Igon glorijara.

Jesus gueure Jaun maite,
Amodijotsua,
Domu dogu gustijoc,
Seu ofendidua.

- 1.^a Josiric icustean,
Crutse orretan seu,
Erruquis ¡ay! biotsa,
¿Noc urratuco es deu?
Baita baleuco bere
Arri biurtua. *Damu &.*
- 2.^a Burutic oñetara,
Gorputs eder ori,
Sauri gordin eguñic,
Dosu gustiori;
¡Ay! sorigaistocoa,
Gueure pecatua! *Damu &.*
- 3.^a Oñac, escu ta alboa,

Dana sulaturic,
Biscar aldeas asotes,
Gustija apurturic;
Arantsa gogorracas
Josiric burua. *Damu &.*

- 1.^a Pecatarijoc ama,
Birgüña saitugus,
Seugan gure biotsac,
Gueuc imiten dogus.

*Eguisu seuc, Marija,
Gu gaitic erregu,
Erijotsaco orduan,
Es gaitesan galdu.*

- 2.^a Seure isen santuac,
Balijs bequigu:
Seure biots onean
Usteac gue dogus. *Eguisu &.*
- 3.^a Bein bere inor esta,
Ta bai, Marija, su,
Ama isan esquero,
Donsella guelditu. *Eguisu &.*

ASQUENA.



BILLABIDEA.

Ortze.

Misiñoen indulgensijae	5
Egunerocoa	9
Asteerocoa	14
Illerocoa	14
Urteerocoa	15
Dempora gustietan eguitecoac	15
Esacuna santuae	16
Confesiñoa	21
Esamiñia	24
Damutasunaren gueigarrijac	36
Proposituaren gueigarrijac	40
Confesetaraeo jaquingarrijac	42
Comuniñoa	45
Mesa santua	52
Errosarijo santua	58
Errosarijo santuaren indulgensijae	64
Salbea	68
Misiñocco cantac	69
